



BARREN

TOKIKOM

Munduko txapeldun, bigarrenengoz

Maite Maiora





PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
 cordonvilarchao@telefonica.net
 San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 98 61 62



LAGUNAK
 colchoneria textil hogar
 San Roke kalea, 20 - Elgoibar
 943 744 457 - 685 756 978
 www.textillagunak.com

DESKONTUAK
 %20ko deskontua ehunetan!

EXPRESS ESKAINTZAK!

RB38T603DSA/EF
SAMSUNG
KONBI
HOZKAILUA

629 €**

** prezioa unitateko.



● PREMIUM
 altzairu herdoilgaitza.
 ● No Frost.
 ● 385 litroko edukiera.
 ● 203 cm-ko altuera.



MILARBIRE
 Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
 Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

ZELETA BARAZKIAK **609 357 619**

NEKAZARITZA TRADIZIONALA eta BABESTUA

- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa
- Bertako produktuetan erantzunik gertukoena

ZELETA BASERRIA
 Aiastia auzoa (Elgoibar)
 www.zeletabaserria.com




ekoizpenaren %100 hazte-zikloa zainduz eta tratamendu kimikoak erabili gabe lortzen dugu

JUAN LUIS MUGERTZA

Idazlea



Berrehun gramo justizia, mesedez!

txoin pixka batean; izozkailuan begiratu tuko dut, badaezpada. Ez dago, bukatu egin da. Nola? Amaitu egin da? Bada-kizu, azken bolada honetan jendeak ez du askotan eskatzen, eta... Nahi baduzu berrehun gramo demokrazia, modu onean...? Ez dakit, bada, gure etxean oso gogoko dugun. Gainera, horrek (g)ezur asko izaten du, ezta? Bai, baina plantxan, buelta eta buelta, eta gainera olio errea botaz gero, ez duzue antze-

mango freskoa denentz. Tira, bada! Kasu egingo dizut. Burua kenduko diot, ala...? Jendeak nola jaten du? Edo-zein modutan. Demokraziak izen ona du, eta... esker oneko jatan asko. Besterik? Demokrazia bakarrik janda, gosetuta gel-dituko gara, eta... Hirurehun gramo askatasun, faborez! Barkatu, baina... horrelakorik aspaldian ez dugu saltzen. Jendeak ez du eskatzen, ala? Beti dago baten bat, zure modukoa, baina, gero eta gutxiago. Lehen, askatasuna, justizia... kontsumitzeko ohitura handiagoa zegoen, baina orain oso garestiak dira produktu horiek, eta egoera honek ez du laguntzen. Orduan, askatasuna, justizia... eskatzeko zer egin behar dugu? Sasoi batean, ka-

lean, Benito Lertxundiren kantetan Gure asmoak, esperantzak, herria, askatasuna, justizia... eskatzea, eta entzutea gauza arrunta zen, baina, egun, gizarteak justiziari eta askatasunari ematen dien garrantzia ikusteko, Eurokopako finalaren inguruan indarkeria matxistak piztu duen alarmari, edota Italiako selezioari egindako harreraren bultzatutako baloreei erreparatzea baino ez dago. Ahaztu gabe, Madrilen 13/13 *sumarioan* auzipetutakoak pairatzen ari diren sasi-epaiketarena. Orduan, orekatuta jateko ohitura galdu dugu, ala? Nahi baduzu, saiatu, ondokoan. Horiek autonomia gehiago eskatzen dute, eta pozik daude.

“Lehen, askatasuna, justizia... kontsumitzeko ohitura handiagoa zegoen, baina orain oso garestiak dira produktu horiek, eta egoera honek ez du laguntzen”



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Eusko Legebiltzarreko Argitaletxea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zaloa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldeggi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasaola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► MILA ESKER ODOL EMAILE GUZTIEI

Mendaroko Odol Emaileen Elkartetik eskerrak eman nahi dizkiegu uztailaren 2an odola ematera gerturatu ziren emaile guztiei. 50 lagun baino gehiago etorri ziren odola ematera eta 46k eman ahal izan zuten. Era berean, eskerrak eman nahi dizkiogu Lagun Betikoak tabernako jabe Bruno Santosi ere. Emailleei mokadutxo bana emateko, tortila batzuk eskatu genizkion, eta ez zizkigun kobratu. Estimaten da, Bruno.

Mendaroko Odol Emaileak

► OHARRA

Uztailaren 23an banatuko dugu opor aurreko azken zenbakia. Ale horretan zerbait argitaratu nahi izanez gero, uztailaren 21erako bidali behar da informazioa BARREneko erredakziora. Aita Agirre kulturguneko 3. solairuan gaude. Informazioa e-postaz bidaltzeko, barren@elgoibarkoizarra.eus helbidera idatzi behar da.

BARREN

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahituez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetara zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztekeraz datorren eskutitzik argitaratuko.

..... BARREneko harpidedunentzako oharra

Buzoiko **B pegatina** falta bazaizu edo hondatuta baduzu, **BARREneko** bulegora etorri eta berria emango dizugu

Barreneko banaketa sistema errazteko behar-beharrezkoa dugu zuen buzoiak pegatinarekin markatzea.

Mesedez, ez ezazue pegatina kendu buzoitik. Gure banatzaileek eskertuko dute.





Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



San Rokeitik Santa Ana kalera doan tunelak arriskutsua izaten jarraitzen du: “San Rokeitik Santa Ana kalera doan bidetik jaisten naiz egunero autoz, eta tunelean arriskua dagoela iruditzen zait. Errontodara sartu aurretik, oinezkoentzako zebra-bidea dago, eta ez da ondo ikusten oinezkorik datorren edo ez, bereziki eskuma aldetik. Ezker goikaldean ispilua badago baina maiz ez dugu begiratzen, ez dugu astirik izaten horra begiratzeko. Gune horretan 30eko abiadura joan behar dela dioen seinalea dago tunelaren aurretik. Agian abiadura gehiago murriztu beharko litzateke edo oinezkoen seinaleak gehiago indartu. Oinezkoek zein auto gidariok eskertuko genuke”.



Aita Agirreko aparkalekuan lurrak kolore desberdina dauka zona batean, eta bide moduko baten itxura dauka. Bide horretan nork dauka lehentasuna, oinezkoak ala autoak?. “Aita Agirreko aparkalekuan harri kolore desberdinez markatutako bidea zebra-bide modukoa dela esango nuke, baina autoak askotan ez dira geratzen, eta oinezkoak arriskuan jartzen dira. Hirigintza Sailetik argitu dutenez, bide horrek zebra-bide baten funtzio berbera dauka, beraz, oinezkoek dute lehentasuna eta autoak gelditu egin behar dira”.



Txalo bat Atxutxiamaikari, bolatokia kolorez jantzeagatik: “Atxutxiamaikak bere egin du bolatokia, eta poza ematen du ingurune hori kolorez jantzita ikusteak. Umeen-tzako gune egokia da, eta umeez euren artelanak egiteko aukera izan dute hango hormetan. Oso polita geratu da. Proposamen bat ere egingo nieke: beste egun batean umeez eurek garbitu dezakete horma, beste ume batzuek ere margetzeko aukera izan dezaten”.



Eskerrik asko Basarteko tenis pista aurreko mahai konpontzeagatik: “Elgoibarko Udalak IMHko tenis pista aurreko mahai eta jarlekuak konpondu ditu. Berriz ere erabiltzeko moduan daude eta eskertzekoa da. Hala ere, eskatu nahi genuke beste mahai bat jartzea. Kuadrillan 12 pertsona gara eta beti liskarretan ibiltzen gara eseritzeko lekua lortzeko. Tenis pista ondoan dagoen jarlekuaren ondoan beste bat jartzea eskertuko genuke”.


Birziklatu ezin diren hondakinen kopuruak gora egin du Debabarrenean, 2020ko lehen seihilekoarekin alderatuta

Gutxiago behar zena gehiago da, eta beraz, atzera egin da Debabarrenean. Izan ere, Mankomunitatek ohartarazi dute 2021eko lehen seihilekoan 2020koan baino 100 tona hondakin gehiago bildu direla edukiontzi grisean, errefusarenean alegia. Edukiontzi grisera botatzen ditugun hondakinak "partzialki" bereizten dituzte Zubietako tratamendu mekaniko biologikoko instalazioan; ez da dena birziklatzen beraz. Ermuan, Eibarren, Mutrikun eta Deban egindako azterketek erakusten dute, kasu gehienetan edukiontzi grisera botatako hondakinen %65 baino gehiago birziklatu daitezkeela, dagokien edukiontziara botatzen badira, grisera beharrean. Horregatik, Mankomunitatek ohartarazi dute garrantzitsua dela hondakinak behar bezala bereiztea, etxean nahiz kalean. "Gaueko aisiarekin edo herriko jaiekin zerikusi duten espazioek ere ingurumena errespetatzen duten espazioak izan behar dute, eta ondorioz, hondakinak leku guztietan bereizi behar dira, bai herri-bazkarietan, bai elkarte gastronomikoetako afarietan, bai gure udalerrietako tabernetan eta baita beste edonon ere", nabarmendu dute.

Joera ona eten da

Edukiontzi grisera botatako hondakinen kopurua murrizten ari zen 2018tik, baina beheranzko joera positibo hori aldatu egin da aurtengo lehen seihilekoan, iaz sasoi berean baino 100 tona gehiago batuta. 2020ko lehen seihilekoan, "alarma-egoerak eta konfinamenduak baldintzatuta", 6.888 tona hondakin bildu zituzten edukiontzi grisetan, 2019an baino 202 tona gutxiago, eta 2019an, berriz, 2018an baino 433 tona gutxiago jaso zituzten. Helburua zehaztua du Mankomunitateak. 2020. urtean onartu zuen Mankomunitateko Batzar Nagusiak Plan Estrategikoa, eta han adostu zuten helburua: 2030ean batuko den guztiaren %70 gaika batzea. Horra iristeko, eta kontuan hartuta 31.500 tona inguru batzen direla urtean, urtean-urtean 522 tona gutxiago jaso beharko lirateke edukiontzi grisean. Horregatik dei egin diete herritarrei kontzientziar eta ingurumenarekiko errespetuz jokatzera. "Asmo handiak eguneroko ohituretara eramane behar dira, ez bakarrik etxean, baita kalean, saltokietan edo enpresetan ere, eta hondakin bakoitza dagokion edukiontzira bota behar da beti".

Aita Agirre Kulturguneko Ikasketa Gela, zabalik



Uztailaren 13tik erabilgarri dago berriro Aita Agirre kulturguneko ikasketa gela. Ikasketa gelan gehienez sei lagunentzako lekua dago, eta erabiltzeko beharrezkoa da 18 urte edo gehiago izatea eta liburutegiko txartela izatea. Ikasketa gelak astelehenetik domekara erabili ahal izango dira ondorengo ordutegian: 8:30etik 14:30era eta 14:30etik 20:30era. Interesatuak eskaera egin beharko dute Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan, telefonoz edo e-mailaz: 943 741 050 edota HAZarreta@elgoibar.eus.

Ikasketa Gela G txartela

Ikasketa Gela G txartelaren alta tramitatzeko eskaera orri bat bete beharko da, zeina Herritarren Arreta Zerbitzuan edo Elgoibarko Udalaren webgunean eskuratu ahal izango den. Txartela pertsonala eta besterenezina da.

Bederatzi gazte elgoibartarrek jaso dute etxebizitza alokatzeko dirulaguntza

Gazteek etxebizitzak alokairuan hartzeko dirulaguntza deialdia zabaldu zuen apirilean Elgoibarko Udalak, eta 35.000 euroko diru partida bat onartu zuen horretarako. Bi helburu nagusi zuten laguntzok: emantzipatzeko bidea erraztea gazteei eta herrian etxebizitzaren alokairua sustatzea. Dirulaguntzak jasotzeko lau baldintza bete behar zituzten gazteek: 18 eta 35 urte bitartean izan behar zuten, azkeneko bi urtean gutxienez Elgoibarren erroldatuta egon behar ziren, jabetzan ezin zuten etxerik izan eta 18:000-30.000 euro gordin arteko diru-sarrerak izan behar zituzten. Guztiara, hamahiru eskaera jaso zituzten Udalean, eta bederatzik jasoko dute laguntza, gainerakoek ez zituztelako baldintza guztiak betetzen. Gazte bakoitzak gehienez urteko 3.000 euroko laguntza jasoko du etxebizitzaren alokairua ordaintzeko. Laguntzaren zenbatekoa diru-sarreen arabera izango da.

ElgoibarKlik plataformaren bitartez banatuko dituzten azken hogei bonoak hilaren 21ean zozkatuko dituzte

Elgoibarko Udalak eta Txankakua merkatarik elkartek 60 erosketa-bono zozkatuko dituzte uztailen, www.elgoibarklik.eus plataformaren bidez. Hiru astetan egingo dituzte zozketak, eta aste bakoitzean 30 euroko 20 bono zozkatuko dituzte. Azken zozketa datorren uztailaren 21ean egingo dute. Antolatzaileek zehaztu dutenez, zozketa bakoitzeko irabazleak ausazko hautaketa baten bidez aukeratu dira, parte-hartzaile guztien artean. Zozketa bidez grabatuko dute eta edozein interesdunen eskura jarriko dute. Elgoibarko Udala sarituekin zuzenean jarriko da harremanetan. Parte hartzeko hiru modu daude:

1. Elgoibarklik.eus sare sozialetan: Instagramen edo Facebooken kontua duten 18 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute. Parte hartzeko Elgoibarklik.eus profila jarraitu behar da, zozketa bakoitzerako egindako argitalpenari "atsegin dut" eman, eta beste erabiltzaile bati etiketa jarri behar zaio argitalpen horretan iruzkin bat eginez. Pertsona bakoitzak nahi beste aldiz parte hartu ahal izango du zozketa bakoitzean.

2. www.elgoibarklik.eus plataforman: Plataforman iruzkin bat egiten duten 18 urtetik gorako pertsona guztiek parte hartu ahal izango dute. Plataformako 'Bezeroentzako arreta' atalean sartu eta plataformari buruzko iruzkin bat egin behar da: hobetzeko iradokizunak, atal gogokoenak, aldaketak, faltan sumatzen diren gauzak. Baliadun informazio gisa soilik onartuko dira iruzkin horiekin lotutako informazioak. Zozketatik kanpo geratuko dira iruzkin osatugabeak, loturarik gabekoak edo garrantzirik gabekoak. Norberaren datuak gehitu beharko dira zozketarako: (izena eta abizena eta harremanetarako telefonoa).

3. Online erosketak eginda www.elgoibarklik.eus atarian: Elgoibarklik.eus bidez online erosketaren bat egin duten 18 urtetik gorako pertsona guztiek parte hartu ahal izango dute. Asteroko zozketa bakoitzean parte hartzeko, nahikoa da online erosketaren bat egitea Elgoibarko saltokiren batean, plataformako online salmenta atalean eta harremanetarako datuak uztea (izena eta abizena eta harremanetarako telefonoa).

Repsol Gidako 'Soletes' kategorian sartu dute Viento Sur gastroteka

Repsol Gidak eguzkiak banatzen ditu ostalaritza establezimenduen kalitate maila zehazteko, eta orain Soletes izeneko atal berri bat sortu du tamaina txikiko establezimenduentzat. Taberna, txiringito edota kafetegi txikiak sartu dituzte kategorian horretan, eta momentuz mila establezimendu daude zerrendan.

Horietatik 50 Gipuzkoako establezimenduak dira, eta tartean, Elgoibarko Viento Sur gastroteka ere sartu dute.



Mintxetako igerilekuan eginiko "ekintza bandalikoak" gaitzetsi ditu Udalak

Elgoibarko Udaletik jakitera eman dutenez joan zen asteko eguen goizaldean 18 eta 22 urte bitarteko herriko hiru gazte Mintxetako igerilekura sartu ziren, eta bainu bat hartzeaz gain, zaborra bota zuten uretara. Zehazki, solariumeko gunea mugatzeko erabiltzen diren 30 kono eta plastikoaren zein organikoaren zabor ontziak jaurti zituzten uretara. Elgoibarko Udalak salatu eta gaitzetsi du gertatutakoa eta horrelako ekintza edota jarrera "bandalikoak" Elgoibarren lekurik ez dutela gaineratu du.



Gauetz kalean jende multzoak elkartzea debekatu du Jaurlaritzak



Botila festaren ondorioak Albitxuriko industrialdean.

Jaurlaritzak kalean jende taldeak elkartzeko debekua ezarri du, eta ondorioz, gauerditik 6:00etara bizikideak soilik elkartu ahalko dira kalean. Gaur gauerdian sartuko da indarrean araua eta Udalek izango dute hori kudeatzeko eskumena. Jai giroko jende topaketak saihestea dute helburu arau honekin, egunotan kasuetan egon den igoeraren sorburua halako topaketetan dagoela uste baitute adituek. Jaiak bertan behera utzita daude berez, baina jaietako egunen bueltan izan dira jende pilaketak hainbat tokitan, eta horien ondoriozko kasuen goraldiak ere bai. Arauak espreski aipatzen ditu parkeak, lorategiak, hondartzak, kirolguneak, portuak eta kostaldeko pasealekuak. Iñigo Urkullu lehendakariak zuhurtziarako deia egin du eta hitz batean laburtu zuen bere esana: "Maskara, maskara eta maskara".

Folklore jaialdia ikusteko izena eman behar da

Covid-19a dela eta, aforo mugatua izango da aurten Nazioarteko Folklore Jaialdirako, eta ondorioz, publikoa antolatu eta ikusleen segurtasuna bermatu ahal izateko, izena emateko eskatu dute Haritz dantza taldeko arduradunek. Gaur arratsaldean jarriko dute izena emateko mahaia Maalako parkean bertan, 17:00etatik 19:00etara. Folklore Jaialdia gaur zortzi izango da, Maalako parkean. Aurten ipar Irlandako Trim The Velvet taldea eta Haritz Dantzari Taldea bera arituko dira oholtzan.

Uztailaren 22an bukatuko da Bertso Eskolan izena emateko epea

Elgoibarko Bertso Eskolan izena emateko epea zabalik dago uztailaren 22ra arte. Interesatuek 943 744 366 zenbakira deituta, edo emailaz euskara@elgoibar.eus helbidera idatzita eman beharko dute izena. Datorren ikasturteko saiokak 8-16 urte bitartekoentzat izango dira, ordubeteko iraupena izango dute eta astelehen arratsaldetan izango dira, Aita Agirre kulturgunean. Irakasle lanetan, berri, Eneko Beretxinaga soraluzetarra arituko da. Bertso Eskolako irakasle ez ezik, Elgoibarko Ikastolan eta Herri Eskolan bertsogintza eta ahozketasuna lantzeko saiokak ere ematen ditu, eta 250 ikasle ditu bere ardurapean.

Landa-partzelen mugak zehaztuko ditu Mendaroko Udalak GPS sistema erabiliz



Kudeaketa administratiboa eta herritarren gestioak errazte aldera, Mendaroko Udalak landa-partzelen mugak zehaztuko ditu GPS sistema erabiliz. Hainbat fasetan burutuko dute lana eta lehen faseari ekingo diote datozen asteetan. Lehen fase honetan, 1, 2, 4 eta 5 eremuetan jardungo da, guztira 117 partzela eta 625,731 hektarea. Geograma enpresak burutuko ditu lanak eta Udalak 4.338 euroko inbertsioa egingo du, BEZ gabe.

AP1etik AP8rako Maltzagako lotunea itxita gaur gauean

Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi du gaur gauerditik biharko 5:00ak arte AP1eko eta AP8 autobideen arteko Maltzagako lotunea itxita egongo dela, Bilborako noranzkoan, Arrizabalaga eta Barrundia tuneletako horma pikoak garbitzeko.

Bitarte horretan, Gasteiztik Bilborantz doazen ibilgailuek bi aukera dituzte: AP1eko Bergara Hegoaldeko 133. irteeran irten eta GI-627 errepidetik Eibarko AP-8ko sarreran berriro autobidea hartu edota Elgoibarko AP-8ko 64. irteeraino jarraitu eta biribilgunean autobidera sartu Bilbo noranzkoan.



Ane Beitia Elgoibarko alkatea, Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusia, Maite Peña Gizarte Politikako foru diputatua, Iosu Arraiz Elgoibarko Udaleko Hirigintza zinegotzia eta Blanca Larrañaga Ongizate zinegotzia.

2022ko urte amaieran hasiko dira Pilarreko zaharren egoitzako lanak, eta egoitza berriak 100 plaza izango ditu

Markel Olano Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu nagusiak lan bilera bat egin zuen barikuan Elgoibarko Udalean, eta haren ostean prentsaurrekoa eman zuen Udaleko arduradunekin batera, Pilarreko zaharren egoitzari buruzko xehetasunak azaltzeko. Ahaldu nagusiak esandakoaren arabera, Pilarreko zaharren egoitzaren proiektua aurrera doa, eta 2022ko urtearen amaieran hasiko dituzte lanak. Elgoibarko zahar etxe berriak 130 plaza izango ditu, eta horrez gain, eguneko zentro bat ere edukiko du, 40 plazakoa. 12-15 plazako unitate psikogeriatriko bat ere izango du, eta eraikinaren azpian lurpeko aparkaleku bat egingo dute, 140-150 plazakoa. 10.500 m² inguruko azalera izango du egoitza berriak, eta eraikitze-kostua 21,3 milioi eurokoa izango da.

Bizikidetzaren unitateak

Zentro berritzailea izango dela adierazi zuten, eta Elgoibarko egungo eta etorkizuneko beharrei ez ezik, Debabarreneko beharrei erantzuteko ere gai izango dela gaineratu zuten. Diputatu nagusiak gogorarazi zuen COVID-19aren pandemiak "hankaz gora" jarri duela adinekoren egoitzetako bizitza. Horregatik, ekipamendu berri hau, bizikidetzaren unitate txikiz osatuta egongo da (12-18 lagunekoa) eta gehienak banakako gelak izango dira. Komunitateari irekita egongo da, eta inguruan espazio berdeak, egonleku zabalak, jantokiak eta kafetegia izango ditu.

2022ko amaieran

Ane Beitia Elgoibarko alkateak adierazi zuenez Pilarreko egoitza errealitate bihurtzen hasiko da legegintzaldi honetan, "elgoibartarrei eman genien hitza betez. Egia da atzerapena izango

duela hasierako aurreikuspenekin alderatuta, eta arrazoi nagusia COVID-19a izan da, zalantzarik gabe". Esan zuenez, Udalak 2021ean burutuko du lursailaren lagapena eta lanei 2022. urteko azken hiruhilekoan ekingo diete. "Aldundiarekin lankidetzaren estuan ari gara lanean, Pilarreko Egoitza Elgoibarko Udalarentzat legegaldiko proiektu garrantzitsuenetako bat delako. Apustu estrategikoa partekatua eramango dugu, tokiko eta Gipuzkoako herritarren bizitza hobea, errazagoa eta seguruagoa izan dadin".

EH Bildu: pandemia ez da denerako aitzaki

Zortzi urte pasatu dira Elgoibarko Udalak Pilar ikastetxea bota zuenetik, eta EH Bilduren ustez "bada ordua" eremu horretarako proiektu bat lantzeko. Berri "pozagarría" izan da Elgoibarko EH Bildurentzat Pilarreko egoitzaren proiektua mahai gainean jartzea, baina "kezka" hartu dute "berriz ere" informazioa prentsa bidez jaso izana. Horrez gain, pandemiaren aitzakiak ez duela denerako balio esan diote Udal Gobernuari: "2019ko udal eta foru hauteskundeetan atarian berdina adierazi zuten. Orduan, proiektua martxan zegoela esan zuten, eta 2022rako egoitza eraikita egongo zela. Gerora jakin dugu, Batzar Nagusietan EH Bilduk egindako galdera baten harira, inongo proiekturik ez zegoela. Beraz, ezin zaio atzerapena Covid-19ari egotzi. Pandemiaren aitzakiak ez du denerako balio". EH Bilduk espero du oraingoan gaiari merezi duen seriotasuna ematea Udal Gobernuak, eta elgoibartarrei gardentasunez hitz egitea asmo guztiak azaltzeko. Informazioa gainerako alderdi guztiaren partekatze eskatu diote Udalari, eta horrelako gai bat elkarlanean lantzeko prestutasuna erakutsi dute: "Garaiz gaude horrelako gai bat denen artean kudeatzeko. Ez dezagun aukera hau ere gal."

▶ MAITE MAIORA

MENDI KORRIKALARIA

Bere ibilbideko bigarren munduko txapelketa irabazi berri du Maite Maiora mendi korrikalariak (Mendaro, 1980), Lleidan. 2016. urtean, mendi maratoiko munduko txapelketa irabazi zuen, eta oraingoan, ultratrail distantzia irabazi du. 9 ordu, 23 minutu eta 56 segunduan osatu du 68 kilometroko ibilbidea. Dena ez du gozoa izan azkeneko bi urtean, baina loria lortu du berriro. Argazkiak: Fotoiosu photography.

- AINARA ARGOTIA -

♦ **Diziplina ezberdinetan, baina bigarregoz, munduko txapelkun. Zorionak. Espero al zenuen?**

Eskerrik asko. Oso pozik nago, bai. Espero nuen ezin dezaket esan, baina bila joan nintzela bai.

♦ **Baina zu ezagututa, hori beti, ala?**

Ez, beti ez. Oraingoan obsesio puntu bat ere baneukan. Bezperan losuri [losu Juaristi, senarra] esan ere egin nion: 'Edo irabazten dut edo kaka'. Eta jakina, gauzak ez dira horrela eta errieta egin zidan.

♦ **Nola planteatu zenuen lasterketa?**

Teknikoki ondo zetorkidan ibilbidea zen, gailur askokoa eta harri artekoa. Ezagutzen nituen Gemma Arenas selekziokidearen entrenamenduak ere [bigarren sailkatu zen] eta banekien desnibel gutxiagoko lekuetan ibili zela entrenatzen, baina ni baino azkarragoa dela korrika. Ibilbidean, baina, lau igoera gogor genituen eta 20 kilometroko kresteria eta banekien hor estutu behar nuela, leku gogorretan eta teknika handiagoa eskatzen zuen lekuetan. Hor, eta jaitzieretan ere bai. Eta asmatu nuen.

♦ **Zure errendimendu horretan zerk du pisu handiagoa: entrenamenduek, burugogorkeriak, buru-estimua, kanpoko presioak...**

Burugogorkeriak. Ni neu naiz nire buruari gehien eskatzen diona, gehien zigortzen duena. Sekulako errietak egiten dizkit



“Amorrotuta joan nintzen, neure buruari hemen jarraitzen nuela erakustera”

losuk horregatik, baina burugogorra ere izan behar da. Etor Mendiak entrenatzen nau ni eta askotan esaten dit 'nik ezin dut' hori gezurra dela. Jarrera kontua dela. 'Bai, ahal dut, baina lortzeko sufritu egin behar dut' pentsatu behar da beti.

♦ **Azkeneko urteetako emaitzek dena esaten dute. Espainiako txapelkun kilometro bertikalean eta ultran, errekorra Zegama-Aizkorri, munduko mendi lasterketari osoena 2017an, hirugarren UTMBko ultratrailan... Zein dago zure gainetik?**

Ez dakit, ez naiz sentitzen beste inor baino gehiago eta ezta gutxiago ere. Onak asko daude.

♦ **Puntaren puntan, 41 urterekin. Bidean, zer egin zaizu zailena?**

Alde psikologikoa. Sinistuarazten digute 40 urterekin gainbehera hasten dela eta erabat sinistuta nongoen. Mendi lasterketetan emaitzak lortzen hasi nintzean hasi zitzaizkidan denak 40 urteko langa aipatzen eta hasi nintzen larritzen ere, gerturatu ahala. 2017an, baina, 37 urterekin, irabazi nezakeen dena irabazi nuen eta goia jo nuen. Baina denboraldia orkatilako tendinitisarekin amaitu nuen. Iraila zen eta nola-hala amaitu nuen urte hura, baina tendinitisak hor jarraitzen zuen. 2018ko maiatzean Peñagolosako traila zetorren, munduko txapelketa, eta

hasi behar nintzen prestatzen, hasi behar nuen denboraldi-aurrea. Eta hasi nintzen entrenatzen, baina minez. Ez nuen estutzen estutu beharko nuen beste. Eta hala iritsi nintzen Peñagolosara, erdiska, behar beste lan egin gabe. 2017a ikaragarria izan zen, hamarrekoa, eta Peñagolosan, 2018ko maiatzean, hasi nintzen sentitzen beharbada hasia nintzela beheraka eta hamarrekoarekin beharrean zazpi-zortzi-koarekin konformatzen hasi beharko nintzela.

♦ **Hala ere, urrea eskuratu zenuten Peñagolosan, taldeka. Zer beste gertatu zen, bada?**

85 bat kilometroko lasterketa izan zen Peñagolosakoa eta azkeneko 25 kilometrotan inoiz ez beste sufritu nuen. Helmugara iritsi banintzen selekziokideengatik eta hautatzaileengatik izan zen, banekielako nire bosgarren postuarekin taldeka urrea eskuratuko genuela. Lasterketa normal bat izan balitz, garbi dago ez nuela amaituko, helmugara sekulako iztarretako eta

“Gazteak horrenbeste hauspotzen dituzte, sinistarazten dietela onenak direla”

hanketako minez iritsi nintzelako. Sufrimendua hainbestekoa izan zen, kosta zitzaidala beldurra gaintitzea. Orkatila ere zisko egin nuen, jakina, eta 5-6ko lasterketak izan ziren ondorengo denak, kaskarrak. Zegama-Aizkorri maratoian erretiratu nintzen urtea izan zen, eta nik ezin nuen. Min-sor hori hor neukan orkatilan, lasterketetan ezinean nenbilen eta pentsatu nuen 40ko gainbehera hori aurreratu egin zitzaidala eta onartzen hasi behar nuela. Baina akordatzen naiz Alejandro Valverde txirrindulariaren beste lorpenen baten berri izan nuela irrati bidez. Nire kintoa da Valverde eta pentsatu nuen: ‘Ez ba, Maite! Hemen badaude zure adin bereko kirolariak punta-puntan jarraitzen dutenak’. Italiako kilometro bertikaletan

ere ikusten nituen ni bezalako señorak lehiatzen.

♦ **Adina aipatu duzu, baina azkeneko munduko txapelketako podiumei begira, nun daude ba destronatu beharko zintuzketeten gazteagoak?**

Ez dakit. Beharbada ez dira ikusten, baina badatoz eta oso onak gainera. Gertatzen dena da lasterketa bat irabazi orduko prentsak eta markek altxatzen dituztela zerura, kazetariak-eta desiatzen egoten direlako errege-erreginak aldatzeko. Hauspotzen dituzte horrenbeste, sinistarazten dietela onenak direla. Nik uste dut arazo handiena hor dagoela: azkarregi sinisten dutela punta-puntan daudela eta hemen lan asko egin behar dela mantentzeko. Sare sozialetan aktibo diren korrikalariak nahi dituzte markek eta gazteak zaleak eta abilak dira halakotan, baina plantak egiteak ez dakar emaitzarik. Ni neu ez naiz batere zalea. Nire emaitzen berri emateko eta babesleei eskerrak emateko bakarrik





erabiltzen ditut sare sozialak. Ez nago eguneko 24 ordutan egiten dudana hor erakusteko prest.

♦ **Nondik ateratzen da indarra gehiago ezin duzula uste duzunean?**

Ez da erraza, baina ni sekula ez naiz izango izan naizena eta onartzen ikasi behar da. Nik gozatu dut ikaragarri mendi lasterketetan, nire palmaresa ere badaukat eta ez naiz hemendik bizi. Garbi neukan hori eta onartu nuen eskailera bat beheragoan ibiliko nintzela, pasatuko zitzaizkidala ondotik aurrera korrikalari gazteagoak eta hobeak, baina gustatzen zitzaidana egiten jarraituko nuela ahal nuen artean. Hasi nintzen onartzen ezingo niola ordura arte beste begiratu erlojuari, lehen egun on batean ordubetean egiten nuen bidea egiteko, hamar minutu gehiago behar nituelako nire egunik onenean ere. Eta hasi nintzen gozamina beste distantzia batzuetan biltzen. 2019an lasterketa luzeagoak aukeratu nituen eta hasi nintzen entrenamendu luzeagoak egiten, baina ez hain exigenteak. Tracka jaitsi eta Pirinio-tako ibilbideez gozatzen hasi nintzen, bi-deak ikasten. Sekulako uda egin zuen gainera, eta inoiz ez beste gozatu nuen, Piriniotan. Lasterketan emaitzak ez ziren

hain onak izaten ari, banekien sekula ez nuela gehiago ordura arte bezain azkar korrika egingo, bistakoa zen, baina iritsi zen UTMB Mont Blancoko ultratraila eta hirugarren egin nuen [170 kilometro eta 9.600 metroko desnibel positibo] duen lasterketan]. 'Zer da hau!' esan nion nire buruari orduan. Ezin nuen sinetsi, baina berotuta, 2019koaren oso antzeko plana aurreikusi nuen 2020rako. Lasterketa luzeak aukeratu nituen, esandakoagatik eta konturatu nintzelako gainera urte asko nabilela beti antzekoa egiten, beti antzekoekin lehiatzen, sufrimendu bera sentitzen.

“Pentsatzeko era aldatu dit pandemiak. Elite mailako kirola beste plano batean laga nuen”

♦ **2020an, pandemia. Nola eragin dizu?**

Sinistea ere! 2020an, neguan, asfaltoan korrika hasi nintzen, baina buruan 2019ko denboraldiko distantzietan saiatzea neukan. Otsaileko bigarren asteburuan Bartzelonako maratoi erdia jokatu

nuen, beste milaka lagunekin batera, eta kolpetik etorri zen pandemia, eta harekin, kale hutsak. Eta kirola bigarren plano batean utzi nuen. Topera ibili ginen lanean eta nik lanari eman nion lehentasuna. Gehienok etxean zeundeten itxita, eta gu kalean, lanean, baina sekulako tristura zegoen. Kirola etxean egiten nuen, kirolaria naizelako eta ezinbestekoa zaidalako bizitzeko, eta egin nituen sekulako astakeriak bizikletan.

Pentsatzeko era aldatu dit pandemiak. Elite mailako kirola beste plano batean laga nuen. Gero, udako irekiera hartan, itzel disfrutatu nuen Piriniotan. Han ere astakeriak egin nituen bizikletaz. Eta ultra batzuk ere jokatu nituen. Emaitzak ez ziren batere onak izan, baina ordurako ez zitzaidan inporta. Ikusten nuen gainera jokatzeakoak nituen lasterketa asko bertan behera gelditzen ari zirela pandemiagatik eta erabaki nuen egoera horretan ez zuela merezi negu batean sei-zortzi orduz entrenatzerik egunean. 2021eko Errege Egunean, baina, irten nintzen entrenatzeri suabe-suabe, eta jausi eta erradioan fisura bat egin nuen. Noiz, eta lanean lan-karga handiena genuen sasoi! Eta iritsi zen derrigorrean lasaitu beharra. Sekula ez beste telebista ikusi nuen!. Errekuperatu

nintzenez, hasi nintzen pixkat entrenatzen. Lasterketa luzeak nituen buruan, baina entrenamendu motzak egiten nituen. 2019an, gainera, diru asko galdu nuen hegaldi eta abarretan eta erabaki nuen ez nuela erretserba bakar bat egingo egoera hartan. FEDMEk antolatzen zituen probak bakarrik jokatzeko ziren sasoi hartan, eta hala, Sevillarako eman nuen izena apirilera.

♦ **Distantzia motzekoa izanda, ez zen a priori zure ezaugarrietako lasterketa Sevillako hura, ala?**

Ez, ez orduan behintzat [21 kilometroko lasterketa]. Baina joan nintzen eta konturatu nintzen, ni baino gehiago ziren Oihana Kortazarrek eta Patricia Pinedok ez zidatela mundu bat atera. Urtebete aurretik orduerdi bat kenduko zidaten, eta zazpi bat minutu kendu zizkidaten. Hirugarren egin nuen.

♦ **Espainiako Txapelketarako aukera zabaldu zizun Sevillako hark gero.**

Sevillara irteteko nintzenez deitu zidan hautatzaileak Jaenen jokatzeko zuten Espainiako Txapelketarako, baina ezetza eman nion beste konpromiso bat neukalako. Pena zen, ordurako distantzia motzei begira jarrita nengoelako, lasterketa luzeak jausten ari zirelako, baina ezin nuen. Baina zer diren gauzak, beste hori bertan behera gelditu zen eta azkenean neuk deitu nion hautatzaileari ia lekuri izango ote nuen galdezka. Hartu ninduten eta bigarren egin nuen, eta denbora onarekin gainera, eta eman nuen izena FEDMEk antolatutako Espainiako Kopako bigarren proba puntuagarriako. [Miranda de Ebron jokatu zen, Burgosen. 35 kilometrokoa] eta han ere bigarren egin nuen, Patricia Pinedoren atzetik.

♦ **Distantzia motzagoak eginda zentzen, baina munduko txapelketan distantzia luzean lehiatu zara. Nolatan?**

Bai, egindako lasterketen arabera, munduko txapelketan maratoian lehiatzea tokatzen zitzaidan, baina nik uste nuen ultran gehiago emango nuela eta gainera burua UTMBn jarrita neukan eta hasi behar nintzen derrigor luzera entrenatzen.

Espainiako ultra txapeladuna, Marta Molis, zuzenez saillatu zen munduko txapelketarako, baina gainerako taldekideak aukeratzeko zaila zuten hautatzaileek lasterketarik jokatu ez zelako eta irizpide teknikoari egin behar zieten jaramon gehiago. Nik ultratzen hartzea eskatu nien, eta Marta Molisek nahiago zuenez maratoia, onartu ziguten aldaketa.

“Sasoiko dagoenarentzat poz handiena ematen duen disziplina kilometro bertikala da”

♦ **Distantzia guztiak probatu dituzu eta denetan lortu dituzu emaitza onak, eta 2017an, munduko mendi lasterketari osoena ere izendatu zintuzten. Zure gustuko distantzia zein da, baina?**

Sasoiko dagoenarentzat poz handiena ematen duen disziplina kilometro bertikala da. Sufrimendu itzela da, bihotza irten beharrean joaten garelako, baina motza da denboran, 40 minutuan asko jota helmugan gaudelako, eta sasoiaren egonda, sufrimendu hori ere gozagarri egiten da. Distantzia osoa, berriz, 20 eta 30 kilometro artekoa izan da niretzat, eta mendizale ikuspuntutik, ultratraila.

♦ **Zenbat lasterketa jokatu dituzun badakizu? Distantzia bakoitzeko gustuakuen aipatuko zeniguke?**

Ezingo nizuke esan. 500 bat dortsal izango ditut. Denak gordetzen ditut. Lorpenik handienak aipatuko nizkizuke: 2017an Zegama-Aizkorri maratoia irabazi eta errekorra ondu izana, Mont Blancoko Ultra Trailko hirugarren postua eta beharbada azkeneko hau, amorratuta joan nintzelako, neure buruari hemen jarraitzen nuela erakustera.

♦ **Zelan kudeatzen da kanpoko presioa?**

Nik beti esaten dut hemen atzean, belarri atzean, biltegi antzeko bat daukadala eta hor gordetzen dudala presio

guzti hori, eta hasten denean atzetik aurrera bistaratzen, kortina zabaltzen dudala. Zortekoa naiz, gainera, losu ondoan izateagatik. Izugarri lasaitzen nau. Lleidan ere, lasterketa bezperan sekulako presioa sentitzen hasi nintzen eta arnasa ere kostata hartzen nuen, baina han neukan losu, eguneroko gaiez hitz egiteko eta presio hori gaintik kentzeko. Pentsari ere ez diot kasurik egiten. Ez naiz itsu-itsuan joaten lasterketara, baina ez diot larreparatzen esaten dituztenei.

♦ **Askorentzat zara erreferente, baina zuk ba al duzu erreferenterik?**

Bai, Luis Alberto Hernando. Behin irabazteko ona izan behar da, baina berriro irabazteko kasta izan behar da, eta Luis Albertok badauka. Sekulako kirolaria da, eta eta pertsona aparta. Estimaten ditudanak, gero, asko daude.

♦ **Epe laburrean, UTMB izango da zure erronka, ala?**

Bai, baina hara orduko, uztailaren 23an, Aneto-Posets traila jokatuko dut. 105 kilometroko lasterketa da, eta 6.750 metroko desnibel positibo du. UTMBra prestaketa gisa hartuko dut. Gauza asko landu behar izaten dira distantzia luze lasterketarako. Azkar korrika egitea inportantea da, baina detaileetan ahalik eta denbora gutxien galteza izaten da erabakigarria. Anoa postu bakoitzean bost segundu galteza, sei lekutan geldituta 30 segundu galteza da, eta hori zuzengune bat da.

♦ **Zer da zuretzat Mont Blancoko ultra-traila irabaztea?**

Summuna litzateke UTMBa irabaztea. Nik ez dakit irabazten duenak zergaitik jarraitzen duen korrika (Kar-kar)!. Gehiegia izango litzateke irabaztea, baina garbi dago ez dudala helburutzat, UTMBa ezin delako joan irabaziko duzulakoan. Irabazteko dena ematera, bai, baina irabaziko duzulakoan ez.

♦ **Ezagutuko dugu noizbait zuen kirol hau Olinpiar Jokoetan?**

Baietz esango nuke, niretzako berandu etorriko bada ere.



Jose Angel eta Jon Rodriguez aita-semeak, eta erdian, Antonio Rodriguez.

► Urazandi berriz girotzeko zain

Hiru urtetan bakarrik egin zituzten Urazandi auzoko jaiak, 1981etik 1983ra bitartean, baina arrastoa laga zuten auzokoen eta herritarren artean. Adinean aurrera doazen askok oraindik gogoan dituzte duela ia 40 urte auzoko kaleetan egin zuten sokamuturra, edo Urazandiko jaietan estreinakoz jaurti zituzten suzko erroberak, hogeita zortzi urtez herrian bota gabe egon eta gero bota baitzituzten. Auzoko dozena erdi lagunek Urazandiko jaiak berreskuratzeko elkartera osatu zuten orain dela hiru urte, eta dena prest dute jaiak berreskuratzeko. Hori bai, datorren urtera arte itxaron beharko dute Urazandi berriro girotzeko.

- ASIER ORBEA -

// laz egin nahi genituen jaiak, baina pandemia dela-eta urtebete atzeratu behar izan genituen. Tamalez, aurten ere ez dago jairik antolatzerik. Hala, 2022ko uztailearen 1etik 3rako asteburuan egitea da gure asmoa, eta prest dugu egitaraua", azaldu du Jon Rodriguezek. Hurrengo urtean

izango diren arren, euren asmoak plazaratzeko unea zela erabaki dute, "urtean zehar zeresana emateko eta jai giroa pizteko, eta baita aurrekontua osatzen joateko ere, noski".

Jaien oroitzapen lausoa du Rodriguezek, oso ume zelako artean, baina beti entzun izan ditu jai haien inguruko kon-



tuak, eta parkeko solasaldi batean sortu zen jaiak berreskuratzeko ideia. "80ko hamarkada hasieran auzoan egiten ziren jaiak buruz berbetan hasi ginen, genituen oroitzapenez, eta berriro antolatzea polita izango zela aipatu genuen, gazteenengatik bereziki, belaunaldi berriek ere ezagutu ditzaten Urazandiko jaiak", azaldu du.

Urazandiko auzokide sentimendua indartu egin dela uste du Rodriguezek, Urazandiko Auzoko Elkar-
teak sustatuta, bere ustez.

Auzotarren bizi-kalitatea hobetzeko eskaerei bide emateko eratu zuten elkarte 2019an. "Jaiak berriro antolatzeko aukera aipatu genuen elkarteak antolatutako bilera batean, eta erantzun oso ona izan zuten ideiak. Aurrera egiteko eskatu zituzten eta ilusioa nabaritu genuen. 'Hau da unea' esan genuen gure artean, eta dena martxan jarri. Hiru lagun hasi ginen eta sei edo zazpi gaude orain taldean, lanerako go-goarekin".

Auzoetako eta kaleetako jai ugari galdu dira azken urteetan, Errosario edo Pedro Mugurutzan egiten zituztenak edo Altzola auzokoak, esaterako. Kontrara, Arriaga auzoko bizi-lagunek 2003an berreskuratu zuten San Antolin festak ospatzeko ohitura. "Badugu non begiratu. Arriagan egin zuten moduan, guk ere bueltan nahi ditugu Urazandiko festak". Aurreratu dutenez, umeak izango dira protagonistak lehen urtean eta ahal duten heinean, lehengo jaietan egiten ziren ekitaldiak berreskuratuko dituzte, besteak beste, ezkonduak eta ezkondu gabekoen arteko futbito partida edo auzokoen-tzako bazkaria. "Su artifizialik edo zezenik ezingo dugu eka-
rri lehen urtean, baina auto klasikoak edo auto telegidatuen



Urazandiko jaietan, sokatiran parte hartu zutenetarikoko batzuk.

erakusketak egiteko asmoa daukagu eta antzerkia eta musika ere ez da faltako. Lehen Miss Urazandi ere aukeratzen zuten. Jai batzordekoek aukeratzen zuten irabazlea aurkeztutakoen artean, eta bata eta besteari galdetuta jakin dut Reyes Linares izan zela azken irabazlea. Ez dut uste guk halakorik antolatuko dugunik, baina gure asmoa da auzoko zaharrenari lora sorta bat oparitzea, adibidez", azaldu du Rodriguezek. Urazandiko parkea izango da jaien bilgunea. Jaiak egiten zituztenean ez zegoen parke hau, zelai bat baizik eta bertan egin zuten sokamuturra.

Hiru urte, eta kitto jaiak!

Herri Gain Elkartea gastronomiko kideek antolatu zituzten Urazandiko jaiak estreinakoz, elkarteak sortu zuten urte be-

Nicolas Aranbarri Larrañagak Super-8an grabatu zituen auzoko jaietako hainbat ekitaldi, horien artean Urazandiko parkea eraiki aurretik zegoen berdegunean egiten zen sokamuturra. Grabazio horietatik hartutakoak dira lerro hauen ondoko irudiak.



rean, 1981. urtean. Uztaileko lehen astebukaeran ospatzen ziren jaiak, baina 1983. urtekoen ostean, utzi egin behar izan zioten jaiak antolatzeari, eskatzen zuen ahalegina-gatik. Lanaz gainera, milioi t'erdi pezetako aurrekontuari aurre egin behar izaten zioten. Familia bakoitzak 200 pezetatako dirusaria ematen zuen batzbestea eta horrekin,

errifekin eta jaiak irauten zuten bitartean ipintzen zuten tabernarekin parra egitea lortzen zuten. Azken urtean, auzoan zeuden beste hiru elkarteek luzatu zieten jaiak elkarlanean antolatzeko gonbitea. Baina gainontzeko elkarteek ez zuten konpromisorik hartu nahi izan, eta hala, 1983. urtean ospatu zituzten jaiak azkenkoz. Jaiak antolatzeari laga ostean, hurrengo urteetan Galiziarrek hartu zuten erreleboa eta Galiziarren jaiak ospatzeari ekin zioten. 2006ra arte auzoan ospatzen zituzten eta urte horretatik aurrera herrigunean antolatzen dituzte.

Auzoko ezkonduen eta ezkongabeen arteko futbol partida antolatu zuten Urazandiko jaien egitarau barruan, Aita Agirre eskolako (Herri Eskola gaur egun) jolaslekuan. Ezkongabeek 2 eta 1 irabazi zuten futbol partida. Alabaina, ezkonduak penalti bat huts egin zuten eta zutoinean jo zuten bi jaurtiketek. Ikus dezagun nortzuek osatu zituzten taldeak: Tente, ezkerretik eskumara: Angel Etxabe, Karmelo Lasuen, Isidro Viñaras, Nicolas Aranbarri, Pedro Azpiazu, Ovidio Campello (It), Juan Carlos Palacios, Jose Luis Diez eta Venerando Cid. Makurtuta, ezkerretik hasita: Santiago Agea, Patxi 'Artetxe', Jose Gomez, Javier Arriola, Hilario Esnaola (It), Patxi Garcia, Andres Ondarza eta Florentino Ortega. Eskuineko argazkian arbitroak eta botilero lanak egin zituen Hilario Esnaola.



Jarri ezazu zure publizitatea BARREN astekarian edo www.barren.eus webgunean



BARREN



943 743 704

688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus


Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3 ezk. - 20870 ELGOIBAR



"Emozioen labirintoa"



Martxel
Narbaiza
Garitagoitia,
10 urte,
Elgoibar



Udako tailerretan papel mache teknikarekin egindako animaziozko pelikula baterako eszenatokiaren produkzioa da hau. Errodajea ere egin da eta orain muntatzen ari dira. Laster filma sortuko dute.

Egileak: *June Arriaga, Asel Canton, Nahia Etxaniz, Leire Gonzalez, Irati de Nova, Julen de Nova, Inar Urizar.*





Jose Inazio Izagirre eta Izaskun Estibaritz El Chalten, Torre Fitz Royn (Argentina, 2015).

‘Mendikolore’, mendirako gidalaguna

Mendira gerturatzeko gonbita da Izaskun Estibaritz eta Jose Inazio Izagirreren ‘Mendikolore’ bloga (<https://mendipixinkolore.blogspot.com>). Mendira egindako osterak jasota uzteko sortu zuten bloga, beste handinahirik gabe, eta 2011. urtetik gaur arte egindako ibilaldien aukeraketa bat jasotzen dute bertan. Argazki askoko eta testu gutxiko bloga da, begiekin gozatzekoa bereziki, eta bi sari eta zenbait aipamen ere jaso ditu hamar urteotan, Euskal Mendi Federazioak banatzen dituen bi Pyrenaica sari tartean, 2016an bata, eta 2019an, bestea. Era berean, duela bost bat urte, mendiari buruzko 50 web eta blog onenen sailkapena egin zuten ‘Rutinas Varias.com’ atarian, eta han ere nabarmendu zuten ‘Mendikolore’ bloga.

- AINARA ARGOITIA -

Mendiko argazkien erakusketa birtual halako bat da *Mendikolore* bloga. Argazki bakoitzak bere argazki-oina du, eta ibilbide bateko ikusgarriena batzen dute irudiek. Dozenaka ibilbide daude, zazpi kategoriatan banatuta: Mendiko aldizkarietan argitaratutako artikulua, Euskal Herria, Pirinioak, Europako mendiak, beste mendiak, Alpeak eta Hego Ameriketako Mendiak. Urteka eta hilabeteka sailkatuta daude ibilaldi guztiak, artxibo batean bezala. Izan ere, horixe zuen helburu behinena Estibaritzek bloga sortu zuenean: “Jendeari mendi ibilaldiak proposatzeko baino gehiago, geuretzako artxibo bat izateko sortu nuen”. Dietario pertsonal bat da *Mendikolore*, Estibaritzek berak nahi/ahal duenean eguneratzen duena senarrak ateratako argazkiekin eta hark argazkien ondoan idatzitako ohar deskriptiboekin. “Hitz gutxi izaten dira, euskara hutsean. Zientzietakoa naiz eta asko kostatzen zait idaztea. Ez naiz bizipenak

kontatu zalea”, dio Izagirrek. “Ezta ibilbidea zenbat denboratan egin dugun esatekoa ere”, gehitu du ondotik Estibaritzek. Ez dute gaurko moda bizi; mendian ahalik eta denbora gehien eman nahi lukete, eta erlojua ez da halakoetan lagun ona. “Gure erritmoa eta mendia ulertzeko filosofia beste bat dira”.

Etxean bertan izan ditu bide-erakusleak Izagirrek ume-umetatik, eta haren eskutik mendizaletu zen Estibaritz: “Gu sekula ez al gara joango hondartzara?, galdetzen nion beti, baina gero joaten ginen hondartzara, egiten genituen bi ordu eta aspertu!. Bere eskutik hasi nintzen mendian, baina soldaduskan zegoela iritsi nintzen estreinakoz Piriniotara, Anayetera (2.574 m). Nepal, Tanzania, Peru, Argentina... Egin ditugun bidaiak guztiak mendiari lotuta egin ditugu”. Bidaiak eta ibilaldi guztietara lepotik zintzilik eramanez du beti argazki kamera Izagirrek, “tripa gainean, geldi”, eta zientzia bat mila argazki egin ditu. “Meritua horrek du. Telefono

“Balaitus, Perdido,

Aneto, Vinemale...

mendi mitikoetarako tira beti izan da, baina gaur gainezka daude”

- Jose Inazio Izagirre -

arinen aroan, motxila astunaz gain kamera reflexa aldean eramateak, berdin lau hankan ibili behar badu, eskalatu behar badu edo rapelatu behar badu ere”, zehaztu du Estibaritzek. Egunetik egunera arinagoa da mendiko materiala eta deigarria ere egiten zaie lagunei Jose Inazio kamera handia hartuta ikustea. “Kuriostatea genuen, eta iaz, Caingo denda batean (Leon, Espainia) pisatu genuen. 1.200 gramo pisatzen ditu. Badakit arinagoak badaudela, baina ondo dabil eta ez dut besterik behar. Ni beti nabil 10 urte atzerago”.

2007an erosi zuen Izagirrek kamera digital hori, baina ordura arteko dena diapositibetan gordeta dauka. “Hamazazpi bat mila diapositiba izango ditut etxean”, dio. “Altxorra dira. Etxeak su hartuko balu zer gauza salbatuko zuen galdetu nion behin eta ‘diapositibak’ erantzun zidan”, jarri du azpimarra lagunak. Argazkilaritzarako afizioa badu Estibaritzek ere. Ongarri Argazkilaritza Taldean ibilitakoa da eta aitortu du bloga sortzeko beste arrazoietako bat hori izan zuela beharbada: “Teknologia berriak baliatuta, paisaia ikusgarrien argazki horietako asko kanpora atera zitezkeela pentsatu nuen”.

Bloga sortu aurretik ere egiten zuen artxibero lana Izagirrek: diapositiben entresaka bat egin, sailkatu, irudiak hitz gutxitan deskribatu eta kuaderno batean jasotzen zituen apunteak. Lan-dinamikak ez zuen beraz zertan aldatu. Eta halaxe ekin zioten blogari. Ikuskatzen zituzten mendiari buruzko webguneak, ibiltzen ziren sartu-irten blogetan, eta Estibaritzek behinik behin, gustukua zuen mundu hori. “Zer eta nola egin jakiteko, galdezka aritu nintzen”. Nolanahi ere, bloga sortzeko benetako bultzada kamera digitala erosteak eman ziela esan du Estibaritzek. 2007an izan zen hori, lau bat urtera sortu zuen bloga eta gerora egindako ibilaldiak dira

bertan jasotzen dituztenak.

“Nolatan ez duzue Anetora egindako igoera jaso edo Dolomitakoak edota Alpeetakoak?”, galdetu izan digute. Gailur enblematikoak, mitikoak, bilatzen ditu jendeak, eta igota dauzkagu asko, baina 2011z geroztikoak daude blogean. Aneto uste dut sartu genuela azkenean, semeare-

kin igo nuelako gerora, baina beste mitiko asko falta dira”, zehaztu du Izagirrek. “Tontor jakinak igo nahi dituzten mendizaleak daude gaur”, dio Estibaritzek. Lehen ere bazirela onartu dute, baina gaur nabarmen gehiago direla garbi lagata. “Balaitus (3.144 m), Perdido (3.355 m), Aneto (3.404 m), Vinemale (3.299 m), Midi d’ Ossau (2.884 m)...mendi mitikoetarako tira beti izan da, baina gaur gainezka daude. 3.000 metrokoetan jende ilarak topatzen dituzu eta 2.900 metrokoak, 3.000koak bezain ederrak edo ederragoak direnak, huts-hutsik ondoan”, dio Izagirrek. Gauza bera gertatzen da gertuagoan ere. “Urbia txikia esaten diote Degurixari, baina han ez dago tabernarik eta ezta Urbian besteko jendetzarik ere”.

Ibilaldi bereziak

Bloga sortu zuenean 55 urte zituela oroitu du Estibaritzek: “Datu bat da. Adinarekin gauzak aldatu zaizkigu guri ere”. Ez dituzte igo egindako ibilbide guztiak ere, ezingo lukete. “Aukeratu egiten ditugu. Guretzat bereziak direnak daude”. Iturmendira (Nafarroa) ekainean egindako irteera batekoa dute azken posta, Santa Marina (1.064 m), Baitza (1.182 m) eta Iruaitzeta (1.144 m) gainak lotu zituztenekoa eta Untzillaitz mendia diagonal handitik (934 m. Bizkaia) igo zutenekoa dator ondoren. “Beti bilatzen dugu zerbait berezia eta beti topatzen dugu, gailurra ezaguna



Castro Valneran (Kantabria), 2012an.

Goiko argazkia: Tuca Blanca de Pomerotik Aneto-Maladeta eta galtzeko arriskuan dauden glaziarrak. Beheko argazkia: Iruaitzulo, Urbasan.



izanda ere, joaten garen aldiro ezberdin topatzen dugulako mendia. Mundu bat da hau, eta zorionez, ez da bukatzen!. Liburuekin gertatzen dena gertatzen da. Bost bizitza beharko genituzke denak irakurtzeko, edo hamar! Karakatera igotzeko ere 101 bide daudela esaten dut nik beti, eta kontra egiten didate batzuek, baina egia da. Karakatek beti du zerbait berria eskaintzeko”, adierazi du Estibaritzek. Euskal Mendizaleen Federazioak sortutako Ehun Mendiak lehiaketako tontor guztiak eginda dituzte, behin baino gehiagotan asko, eta bideak, muinoak, kanalak... begien aurrean balitu bezala deskribatzen ditu Izagirrek, mapa eta bestelako gailurik gabe. “Ez daukat GPSrik, eta nahi ere ez momentuz behintzat”. Lagun batekin Europako mendietara, Lechugalesko kanaleran, joan zenekoa ekarri du akordura: “Bagindoazen kanalean gora Aitorren GPSak esandakoari jarraituz eta iritsi ginen horma baten aurrera. GPSak zuzen jarraitzeko markatzen zigun eta aurrean hormatzarra guk!

Detaile harekin gelditu nintzen”, dio. Estibaritz zalegoa da teknologia berrietara. Doan lekukoko ibilbideak jaitsi ohi ditu sakelako telefonora Wikilocetik, baina sarri hartu dute beste bide bat. “Eskubira jartzen du hemen”, nik, eta Jose Inaziok: ‘Ez, goazen ezkerretik. Oso orientazio ona dauka. Sekula ez da galdu mendian; gehienez, desbideratu. Eta nik kasu egiten diot beti. Yo voy de elegante”, dio.

Asko ibilitakoaren kontuak dira. Ezagunak dituzte bazterrak, eta horrek inprobisatzeko aukera ematen die. 17 bat urte zituela hasi zen Piriniotara osteraka Izagirre eta gerora makina bat buelta egin dituzte hara, bai eta Europako mendietara ere. “Goizaldeko hiruretan abiatzen ginen hemendik seirak alderako iristeko hara, eta iluntzean, buelta, mendia eginda. Edo egin gabe, orduan ez zelako gaurko konturik! Gaur, eguraldi iragarpena aztertuta joaten gara, baina orduan sarri gertatzen zitzaigun joan eta sekulako eguraldi txarra topatzea”, esan du Estibaritzek. Dena hobetu da: errepideak, materiala, eguraldi iragarpenak. “Europako mendietara joatea odisea bat izaten zen lehen, baina orduan joaten baginen, pentsa orain!”. Ahal duten guztian egiten dute eskapadaren bat, baina gertuagoko mendietan

ere gozaten dute, “berdin-berdin”. Egunean bertan erabakitzen dute nora jo. 6:00ak-7:00ak aldera jaiki, eta zortziretarako hor dira autoan. “Nora joango gara?” galdetzen dit, eta nik: ‘Deba-Zumaia egitera?’ . ‘Hori ez behintzat. Goazen Altipitatxera” [Itxina mendilerroa, Gorbeia, Bizkaia]”. Beti okurrizten zaio zerbait eta beti asmatzen du”, esan du Estibaritzek. Eta asko dabilenak, erronkak ere beti izaten ditu. “Egin nahiko genituzkeen batzuk egiteko aukera joan zaigu, baina beste batzuekin saiatu nahiko genuke”, zehaztu du Izagirrek. Bi mendi ditu buruan Estibaritzek. Perdido mendia igo nahi luke berriro, baina eskaileren bidetik, “jatorrizko bidetik”. Eta Moskowako korridorea ere begiz jota dauka Vine-malen. Zortzi bat kilometroko igoera da, 1.900 desnibel positi-

tiboduna. Ez da ezinezkoa, baina bai, “lehen baino zailagoa”. Belaunei kolpe egin die. “Gaitasunak neurtu egin behar dira”. Izagirrek ere badu egin nahiko lukeenik, eta horietako bat, Europako mendietan. Naranjo de Bulnes mendira itzuli nahiko luke, baina oraingoan Pidal Cainejo bidetik. “1904an zabaldu zuten bidea [Pedro Pidalek eta Gregorio Perezek], bitarteko handirik gabe. Irakurrita daukat eta liluratuta nauka. Baina gutxienez 5+ zailtasuneko eskalada eskatzen du, eta...”.

“Mundu bat da hau eta zorionez ez da bukatzen. Karakatera igotzeko ere 101 bide daudela esaten dut nik”

30.000 euroko dirulaguntza banatu du Elgoibarko Udalak 11 kultur talderen artean



Aurtengo onuradunak

- Elgojaitza: 2.014,37 euro
- Egur arte tailerra: 5.963,71 euro
- EILT-GARE irratizale elkarte: 700,00 euro
- Eskuz taldea: 2.870,19 euro
- Karakate mikologia elkarte: 719,42 euro
- Morkaiko elkarte (Hezur Museoa): 2.150,77 euro
- Mufomi, fosil eta mineralen museoa: 2.150,77 euro
- Ongarri argazkilari taldea: 2.510,48 euro
- Ongarri zinekluba: 5.244,68 euro
- Sinuose: 4.092,88 euro
- Taupada antzerki taldea: 1.582,73 euro

Elgoibarko Udalak 30.000 euro banatuko ditu aurten irabazi asmorik gabeko herriko kultur talde eta elkarten artean, eta guztira 11 taldek jasoko dute dirulaguntza. Kultur sektoreari bideratutako dirulaguntza izendunak eta norgehiagoka bidezko laguntzak eskaintzen ditu urtero Elgoibarko Udalak. Udaletik jakitera eman dutenez, laguntza horien helburua da Elgoibarko kultur taldeen jardunari balioa ematea eta momentuko egoera honen aurrean euren lanari bultzada ematea, egiten duten lan hori babestuz, Elgoibarren kulturak bizirik jarrai dezan. "Elgoibarko Udalak, kulturarekiko apustu irmoa egin du, are gehiago orain, pandemiaren eraginak sektorearengan zein kultur talde eta eragileen lanarengan nabariak diren honetan", esan dute.

Zirkoa gaur, Kalegoen plazan

Korapiloak ikuskizuna ekarriko du gaur Rojo Telon konpainiak Elgoibarrera, Udalak antolatutako *Kultura Eguzkitan* egitasmoaren barruan. Hiru emakume izango dira protagonistak, eta lurreko zein aireko akrobazien bidez, korapiloak askatuko dituzte. Umorea, interpretazioa eta zirkoko teknikak erabiliko dituzte korapilo horiek askatzeko. 19:00etan izango da emanaldia, Kalegoen plazan. (Euria bada, Maalako parkera lekualdatuko dute).



ETB1 eko lehiaketa baterako partaide bila ari dira

Euskal Telebistak *Zurekin Bat!* lehiaketa jarriko du martxan ETB1en irailetik aurrera, eta bertan parte hartzeko lehiakide bila ari dira. Lehiaketa, funtsean, galderaerantzunak formatuko saioa da. Lau kideko bi talde arituko dira lehian. Bi taldeak aurrez aurre arituko dira astean zehar; helburu nagusia egunero jokoan dauden 800 euroak irabaztea eta programaren zaku potoloa eramatea izango da. Taldekideek (familia, kuadrilla, lankideak, pisukideak, kirolari taldeetako kideak...) haien jakituria neurtzeko aukera izango dute. Lehiaketa astelehenetik ostegunera, izango da ikusgai. Izena emateko 618 553 423 telefono zenbakira deitu edo zurekinbat@k2000.com helbidera idatzi behar da.


Binakako Aizkolari Txapelketa Nagusia jokatu du Uxue Ansorregik




Aizkora modernizatzea, profesionalizatzea eta garai berrietara egokitzeko ahalginean, Sherpa.ai Aizkolari Txapelketa antolatu du Euskal Herriko Aizkolari Elkarteak, Sherpa.ai adimen artifizialeko enpresaren laguntzarekin. Txapelketak zenbait berrikuntza izango ditu, horien artean, binakako eta banakako txapelketak jokatu dira, eta proba guztietan parte hartuko dute emakumeek. Gaur, hilak 16, jokatu dute Binakako Aizkolari Txapelketa Nagusia, Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan (22:00). ETBn bihar eskainiko dute aizkora jaialdia. Hiru mailatan lehiatuko dira: lehen mailan hamar aizkolari arituko dira, promoziokoan zortzi, eta emakumeenean sei. Uxue Ansorregi mendarorak Karmele Gisasola Zelai III. arekin osatuko du bikotea; ondo ezagutzen duen bikotekidea da, Euskal Pentatloian elkarrekin aritu baitziren lehian. Zelaik eskerrak eman zizkien antolatzaileei txapelketa aurkezteko Azpeitian egin zuten prentsaurreko agerraldian, emakumezkoengan ere pentsatzeagatik. "Kontuan edukita lehenengo aldiz jokatu dela nesketan aizkorako binakako txapelketa, aizkora ere aritzeko gai garela erakutsi nahi dugu. Txapelketan egin beharreko lanak ez dira oso exijenteak, parte hartuko dugun sei aizkolarietatik laurentzako bigarren plaza izango da hau aizkora. Saiatu saiatuko gara, ordea, eta nahi duguna da txapelketa erakusleho bat izatea, beste batzuek ere ikusteko eta animatzeko. Saiatuko gara ahalik eta lan onena egiten", adierazi zuen kirolari mallabiarrek.

Haundiren lehen fitxaketak hasi dira ailegutzen

Haundi futbol taldeko 2021/2022 denboraldirako lehen fitxaketen berri eman du C.D. Elgoibarrek. Momentuz lau jokalaria ailegatu dira talde nagusira. Ermuatik datoz hiru: Lander Izagirre, Markel Garcia eta Iker Grande. Laugarrena Debako Amaikak Bat taldeetik fitxatu dute, Iñigo Oteo erdilaria. Pare bat fitxaketa gehiago egitea gustatuko litzaietela azaldu dute futbol taldeko arduradunek, baina fitxaketak egiteko aukera zaila dagoela gaineratu dute. Haundik abuztuaren 2an hasiko ditu denboraldi berriko entrenamenduak.



Markel Garcia



Iker Grande

Beñat Fernandezek hirugarren egin du Arantzazuko Igoeran

Arantzazuko 51. igoeran lehiatu ziren junior mailako txirrindulariak joan den zapatuan. Txirrindulariak 69 kilometroko lasterketako azken zatian igo ziren Arantzazu auzora, eta Donosti Berri taldeko Iñaki Errazkin izan zen azkarrena. Irabazleak 27 segundoko alde ateratu zuten ondorengoei. Bigarren posturako lehia itzela eduki zuten Ulma taldeko Aimar Madinak eta Elgoibarko Lagun Taldeako Beñat Fernandez mendarorak. Arantzazuko Igoera aldapa pikoan amaitzen den arren, esprint estua jokatu zuten Madinak eta Fernandezek, eta txantxikuarra gailendu zen zentimetroetako aldeaz. Lagun Taldeako arduradunek nabarmendu duteenez, asteburu "bikaina" osatu dute taldeko juniorrek. Izan ere, Fernandezek eskuratutako hirugarren postuari, Jokin Amorrostak domekan Zumarragako Sari Nagusia lasterketan lortutako seigarren postua gehitu behar zaio.



Gojko Vucinic izena izango du Sanlok irailerako antolatuko duen kadete mailako txapelketak

Sanlo kirol taldeak denboraldiari amaiera emateko antolatu ohi duten festarik gabe esan dio agur 2020-2021 denboraldi berezi honi, pandemiaren ondorioz, eta nola ez, joan den barikuan egin zuten batzar nagusian aurkeztu zituzten diru kontuetan ere izan du eragina pandemiak. Sanlok 8.298 euroko defizitarekin amaitu du denboraldia; diru sarrerak 124.782 eurokoak izan baitira eta gastuak 133.077 eurokoak. Lehiaketak publikorik gabe jokatu izanak eragina izan du eskubaloi taldearen ekonomian, ohiko diru iturri batzuk galdu baitituzte: Batetik ezin izan dute SanloBeer Fest garagardo azoka antolatu; eta, bestetik, Alcorta eta Gaurve senior mailako taldeek Olaizagan jokatzen zutenean egin zituzten zozketak ere ezin izan dituzte egin. Datorren denboraldirako 142.400 euroko aurrekontua onartu zuten batzarraren eta bazkideen kuotak bere horretan mantentzea ere erabaki zuten.

Gojko Vucinicen omenez

Dirua baino galera handiagoak izan ditu baina Sanlok joan den den-



Sanloren batzar orokorreko irudia.

boraldian, Sanloko harrobiaren ardura duna eta entrenatzailea zen Gojko Vucinic zendu baitzen apirilean. Montenegrokoak Sanloren alde eginko lanari aitortza egin nahi dio klubak, eta bere izena izango du aurrerantzean kadete mailako taldeentzako irailan antolatzen duten txapelketak. Irailaren 3tik 5era bitartean jokatuko da hirugarren edizioa. Hamasei talde lehiatuko dira, zortzi talde nes-

kenak eta beste zortzi mutilenak. Denboraldiko kirol balantzeari dagokionez, Sanloko talde gutxik lehiatu ahal izan dute aurten. Seniorretan, Alcorta Forging Group gizonetzkoen taldeak ezin izan zion 1. Nazional mailari eutsi, eta Euskal Ligan arituko dira 2021-2022 denboraldian. Aldiz, senior emakumezkoen Gaurve taldeak Zilarrezko Ohorezko Mailan jarraituko du, mailari eustea lortu eta gero.

aldaz
hortz klinikak
RPS233/13
Tel.: 943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA
Toriblo Etxebarria, 22
Eibar
677 551 850

fisio&mas
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea
Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 964 028
www.fisio-mas.com
RPS 877/18

RPS 183/12
Uzuri
optika audio
Elgoibar
Tel.: 943 740 359
Deba
Tel.: 943 192 192

FUB Fernando
Urizar
Barandiaran
R.P.S.: 32/17
Medikuntzan doktorea
Psikiatrian espezialista
Psikoterapia psikoanalitikoak
Psikosomatika
Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)
Ballen kalea, 9, 1, ezk. (Bilbo)
furizarf@yahoo.com
615 715 404

**leku
eder**
hortz klinika
RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Etxebarria, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

federópticos
ikus
RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

RPS 271/12
ainhoa
fisioterapia
Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar
943 531 953
669 565 745

2020/11/25



*Carlos
Lehr Iraegi*

2021/03/09



*Maria Luisa
Sangrador Epelde*

2021/07/12



*Jacinto
Sanz Urrutia*



Inoiz ez zaituztegu ahaztuko.

"ZORTZIROK" LAGUN-KUADRILLA



I. URTEURRENA

Luis Maria Fuente Martinez

2020ko uztailearen 18an hil zen, 81 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan,
uztailearen 18an, 11:30ean, Elgoibarko Bartolome Deunaren
eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Quisicedotik Kantauri itsasoaren magalera
jakin gabe zer izango zan,
famili haundixa sortu ziñuan.
Beti izango zera gurekin. Gugan bego.***



Eskertzak eta urteumenak **943 743 704 / 943 744 112**
Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

LANA.....
Eskaerak

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, etxeetan, portaletan, lokaletan, tabernetan... Esperientzia daukat. ☎ 602 490 595

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Titulua eta esperientzia ditut. Etxeetan garbiketa lanak egiteko ere prest nago. ☎ 666 197 831

Pertsona nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, orduka edo asteburuetan. ☎ 641 821 288

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka, asteburuetan edo etxeko langile moduan. Esperientzia handia eta erreferentziak ditut. ☎ 688 735 551

Mutila lanerako prest. Adinekoak edo umeak zaintzeko, garbiketa lanerarako, zerbitzari lanerarako, banatzaile... edo zeratarako prest. ☎ 626 407 923

Emakume euskalduna eskaintzen da garbiketa lanak egiteko eta adinekoak zaintzeko. Esperientzia eta titulua ditut. Beste edozein lan egiteko ere prest. ☎ 626 490 986

Umeak eta adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 612 202 116

Eskaintzak

Adineko pertsona bat zaintzeko zaintzaile bila gabilta. Ezinbestekoa titulazioa eta paper guztiak legez izatea. Garrantzitsua da txakurrak gustuko izatea. ☎ 675 705 139 / 629 184 010

ETXEBIZITZAK.....
Alokairua

Pisua hartuko nuke alokairuan. Premiazkoa, berehala sartzeko prest. ☎ 657 140 505



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo ☎ 688 634 044 bidalita.



Zorionak, **Jon!** Zapatuan 8 urte! Ondo pasa zure egunean! Etxeko guztion partez.



Zorionak, **Noa!** Zure bigarren urtebetetzea primeran pasa dezazula! Familiakoekin partez, muxu handi bat, printzesa!



Zorionak, **Beñat**, uztailearen 13an 2 urte egin zenituelako! Eta, baita zuri ere, **Malen**, abuztuaren 25ean 5 urte egingo dituzulako. Muxu handi bana, etxekoekin partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas

Euzkoako Finantza Administrazioaren Kontseilua



ROSA Ma PINTADO

Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679

rosapf@telefonica.net

Gure atarian, lehen pisuko etxebizitza batean, jabeak bere etxeko leihoan barroteak jartzea eskatu du. Jar ditzakeen jakin nahi nuke.

Hasiera batean, fatxada eraikinaren elementu komuna dela hartu behar dugu kontuan, eta, beraz, haren estetikari eragiten dion edozein aldaketa debekatuta egongo da, salbu eta jabeak aho batez erabakitzen badute eta, hala badagokio, erabaki hori ez bada udalerriko araudiaren aurkakoa. Beheko solairuko leiho batean barroteak jartzea eskatuz gero, komunitateak instalazio hori debekatzeko duen eskubidea ez dator bat jabe partikularrek bere etxebizitzaz gutxieneko segurtasun-baldintzetan gozatzeko duen eskubidearekin. Dena dela, jabeak baimena eskatu beharko dio beti Jabeen Batzordeari. Hark oniritzia ematen badu, eskatutako burdin sareak instalatu ahal izango ditu. Aldiz, komunitatearen baimenik lortzen ez bada, eta jabeak, instalazio horretan interesa izaten jarraitzen badu, erabakiaren aurka egin beharko du epaitegi eskuduneari, eskubide-abusua delako, eta, gainera, etxebizitza segurtasun-baldintzetan jartzearen aurka doalako.

ONDORIOA: Horrelako egoeretan, askotariko kasuak planteatzen dira. Auzitegiek elementu horiek jartzea onartzen dute, betiere fatxadaren estetikari modu larrian eragiten ez badiote eta etxebizitzaren segurtasunerako beharrezkoak badira, edo beste jabe batzuei eragiten ez badiote. Esate baterako, barrote horiek instalatuta goiko solairuaren segurtasuna arriskuan jartzea, hura erabiliz eskalatu ahal izango delako.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2

16 BARIKUA

17:00-19:00 Folklore jaialdia ikustera joateko izena emateko mahaia jarriko dute Haritz Dantza Taldeko kideek Maalako parkean.

19:00 Antzerkia: 'Rojo telon: korapiloa'. Kalegoen plazan. (Euria egiten badu, Maalako parkean).

22:00 Aire libreko zinea, Mendaron: 'Pikachu'. Goñati frontoian.

18 DOMEKA

11:30 Meza Nagusia, San Bartolome parrokian, Maria Magdalenaren oroime-
nez.

19 ASTELEHENA

18:00 Emakumeentzako jabetzako ta-
lerra: 'Feminismo zoroak'. Loredi Salegik
gidatuko du saioa. Elgoibarko Kultur
Etxeko hitzaldi gelan.

23 BARIKUA

19:00 Nazioarteko Folklore Jaialdia.
Haritz Dantzari Taldeak antolatuta, Ma-
lako parkean.

Ekainean hildakoak

- **Enrique Eguren Diaz**
94 urte, ekainak 4
- **Gloria Osoro Agirrebeña**
87 urte, ekainak 6
- **Antonio Garrido De Díos**
73 urte, ekainak 8
- **Begoña Gil Altuna**
60 urte, ekainak 9
- **Francisco Egea Garcia**
70 urte, ekainak 11
- **Felisa Etxabe Egibar**
103 urte, ekainak 13
- **Maria Uribetxeberria Arzuaga**
93 urte, ekainak 16
- **Alejandro Alvarez Galdós**
81 urte, ekainak 16
- **Jon Galarraga Aranguren**
51 urte, ekainak 19
- **Alfonsa Gonzalez Aranda**
89 urte, ekainak 27
- **Pedro Lariz Muguruza**
96 urte, ekainak 28

Botika ordutegiak

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK Egunez: 09:00-22:00
Iluntzean: 20:00-22:00
Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

16 BARIKUA	17 ZAPATUA	18 DOMEKA	19 ASTELEHENA
Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez
Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Arriola
20 MARTITZENA	21 EGUAZTENA	22 EGUENA	23 BARIKUA
Egunez *Fernandez	Egunez Arriola	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego
Iluntzean ---	Iluntzean Arriola	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego

* Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) 943 756 142
* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638
* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384

Urte guztian, gabez: 22:00-09:00
Arantzazu Izpizua, Ibarkurutze, 7 (Eibar) - 943 201 912

Jacinto Sanz Urrutia

2021eko uztailaren 12an hil zen, 81 urte zituela



Betirako izango zaitugu gogoan.

ZUBI - ONDO





Jacinto Sanz Urrutia

2021eko uztailaren 12an hil zen, 81 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Zure indarra eta adorea
gogoan dugun bitartean,
beti izango zara
gure artean.**

Etxekoak



Jacinto Sanz Urrutia

2021eko uztailaren 12an hil zen,
81 urte zituela.

Gurekin zaude, ibilaldietan, sentadilletan... eta hizketaldietan.



60+ taldea



V. URTEURRENA

Ricardo Garate Zubiaurre

2016ko uztailaren 18an hil zen, 57 urte zituela. Haren oroimenez
V. urteurreneko meza izango da, domekan, uztailaren 18an,
11:30ean Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

**Ezin ikusi, baina bai senti,
orain 5 urte joan zinen arren,
gure bihotzean beti zaude bizirik.
Maite zaitugu.**

Etxekoak





ELGOIBARKO NAZIOARTEKO XXXIV. FOLKLORE JAIALDIA

TRIM THE VELVET - *IRLANDA*
HARITZ EDT - *EUSKAL HERRIA*

2021eko uztailaren 23an, ostirala

19:00etan, MAALAKO parkean

